Lehenik eta behin, eskerrik asko parte hartzeagatik!

(Mesedez, itzali zure mugikorra, eskerrik asko!)

Ikerketa honetan lan-oroimena ikertzen ari gara. Lan-oroimena telefono-zenbaki bat bezalako informazioa denbora gutxian gogoratzeko erabiltzen dugu (adibidez, zenbakia markatzeko behar den denbora). Lan-oroimena eguneroko zeregin konplexuagoetan ere garrantzitsua da, hala nola irakurria edo entzuna den testu bat ulertzeko, arrazoitzeko eta aritmetika mentala egiteko.

Guztira 4 zeregin labur izango dira.

Sakatu edozein tekla zure lehen zereginaren jarraibideak irakurtzeko.

ZEREGINA: Memoria eguneratzea

Zeregin hau memorian informazioa eguneratzeko duzun gaitasunari buruz da. Pantailan marko? laukizuzen batzuk egongo dira (3 eta 5 marko bitartean). Marko bakoitzean digitu bat agertuko da segundu batez. Zure zeregina zein digitu zein markotan zegoen gogoratzea da.

Marko bakoitzean digitu bat agertu ondoren (MEMORIZATU deitua), eragiketa aritmetikoen sekuentzia bat ikusiko duzu marko indibidualetan, adibidez «+2» edo «-4» (EGUNERATU deitua). Zure zeregina eragiketa bakoitza gogoratu duzun digituari aplikatzea da. Gogoratu, beraz, eragiketa bakoitzaren osteko zenbakia. Marko berean beste eragiketa bat agertzen denean, aplikatu orain gogoratzen duzun emaitzari eta eguneratu berriro marko horren edukia zure memorian. Gogoan izan beti kalkulatutako azken digitua marko bakoitzerako.

Azkenik, marko bakoitzean galdera-ikurrak agertuko dira memorizatzen jardun zaren digituaren emaitza noiz idatzi behar duzun jakiteko (OROITU izenekoa). Idatzi erantzun zuzena zenbaki-teklak erabiliz.

Sakatu edozein tekla jarraitzeko…

Adibidea 3 markorekin:



Sakatu edozein tekla jarraitzeko…

Atseden hartzeko etenaldi batzuk izango dituzu.

Zereginaren aurretik bi praktika egingo dituzu. Etenaldi bat izango duzu praktikaren ondoren; galderarik bazenu galdetu lasai orain edo praktika bukatutakoan.

Galderarik? Galdetu mesedez ikerlariari.

Sakatu edozein tekla jarraitzeko eta zereginarekin hasteko...

ZEREGINA: Eragiketen segida

Hurrengo zeregina aritmetika mentala egiteko eta aldi berean informazio berria gogoratzeko duzun gaitasunari buruzkoa da. Beraz, bi eginkizun izango dituzu aldi berean:

Lehenengo zeregina: eragiketa sinple batzuk ikusiko dituzu eta bakoitza zuzena den erabaki beharko duzu. Adibidez, 4 + 3 7 da, baina 10 - 1 ez da 8.

Eragiketa bakoitza 3 segundoz bakarrik egongo da pantailan. Hartu erabakia eragiketa pantailan dagoen bitartean. Erabili eskuineko gezi tekla ➡ «Bai, eragiketa zuzena da» adierazteko eta ezkerreko gezi tekla ⬅ «Ez, eragiketa ez da zuzena» adierazteko. Funtsezkoa da gutxienez emaitzen % 85a asmatzea. Horregatik, saiatu akatsik ez egiten eta denbora barruan erantzuten.

Bigarren zeregina: eragiketa bakoitzaren ondoren, letra bat agertuko da pantailan. Memorizatu letra hauek aurkezten diren ordenean.

Letra desagertzean, hurrengo eragiketa agertuko da, eta horrela, pantailan «?» bat agertzen den arte, oroimenaren hasiera zehazteko.

Sakatu edozein tekla jarraitzeko...

«?» agertzean, ekarri gogora memorizatutako letrak ordena egokian, teklatua erabiliz. Ez baduzu letraren bat gogoratzen, ez saltatu, saiatu asmatzen.

Segida bakoitzak 4 eta 8 eragiketa artean ditu, eta, beraz, 4-8 letra memorizatu behar dira.

Atseden hartzeko etenaldi batzuk izango dituzu.

Zereginaren aurretik hiru praktika egingo dituzu. Etenaldi bat izango duzu praktikaren ondoren; galderarik bazenu galdetu lasai orain edo praktika bukatutakoan.

Galderarik? Galdetu mesedez ikerlariari.

Sakatu edozein tekla jarraitzeko eta zereginarekin hasteko...

ZEREGINA: Esaldi-zerrenda

Zeregin hau aurrekoaren oso antzekoa da, eta testuak ulertzeko eta aldi berean informazio berria gogoratzeko duzun gaitasunari buruzkoa da. Beraz, orain ere bi eginkizun izango dituzu aldi berean:

Lehenengo zeregina: esaldi batzuk irakurriko dituzu eta bakoitza egia edo gezurra den erabaki beharko duzu. Adibidez, «Zuhaitz guztiak landareak dira» egia da; «Pertsona batek isatsa du», ordea, gezurra da.

Esaldi bakoitza 5 segundoz bakarrik egongo da pantailan. Hartu erabakia esaldia pantailan dagoen bitartean. Aurretik bezala, erabili eskuineko gezi tekla ➡ «Bai, esaldi honek zentzua du» adierazteko eta ezkerreko gezi tekla ⬅ «Ez, esaldi honek ez du zentzurik» adierazteko. Orain ere funtsezkoa da gutxienez esaldien % 70a asmatzea. Horregatik, saiatu akatsik ez egiten eta denbora barruan erantzuten.

Sakatu edozein tekla jarraitzeko...

Bigarren zeregina: esaldi bakoitzaren ondoren, letra bat agertuko da pantailan. Memorizatu letra hauek aurkezten diren ordenean.

Berriro ere, amaieran «?» agertuko da pantailan, ordura arte memorizatutako letra guztiak ordenean idatz ditzazun. Ez baduzu letraren bat gogoratzen, ez saltatu, saiatu asmatzen.

Segida bakoitzak 4 eta 8 esaldi artean ditu, eta, beraz, 4-8 letra memorizatu behar dira.

Berriro ere, atseden batzuk eta hiru praktika egingo dituzu.

Galderarik? Galdetu mesedez ikerlariari.

Sakatu edozein tekla jarraitzeko eta zereginarekin hasteko...

ZEREGINA: Epe laburreko memoria espaziala

Zeregin hau informazio espazialaren epe laburreko memoriari buruzkoa da.

Lauki-sare bat ikusiko duzu pantailan. Saiakera bakoitzean, puntuak agertuko dira bata bestearen atzetik, bakoitza segundo batez, lauki-sarearen lauki batzuetan. Zure zeregina puntuak agertu diren laukiak memorizatzea da.

Segida bakoitzak 2 eta 6 puntu artean ditu.

Puntu guztiak agertu direnean, hurrengo mezua agertuko da: «Mesedez, marraztu puntuak». Orduan, ipini gogoratzen dituzun puntuak dagozkien laukietan klik eginez, sagua erabiliz.

Puntu bat ezabatu dezakezu berriro ere gainean klikatuz. Hau da, puntu bakoitzaren kokalekua nahi adina aldiz alda dezakezu.

Sakatu edozein tekla jarraitzeko...

Ez da garrantzitsua lauki guztiak zehatz adieraztea. Garrantzitsuena puntuen arteko erlazio espaziala zuzen erreproduzitzea da. Hau da, puntuen patroi egokia adierazi behar duzu, baina patroiak ez du zertan kokapen egokian egon.

Segidan adierazitako puntu kopuru berbera adierazi duzunean, «Hurrengoa» botoia agertuko da pantailan. Sakatu «Hurrengoa» botoi hau bukatu duzunean eta zure erantzunarekin seguru zaudenean.

Bi praktika izango dituzu. Praktikaren ondoren etenaldi bat izango duzu; galderarik bazenu, galdetu lasai orain edo praktika bukatutakoan.

Galderarik? Galdetu mesedez ikerlariari.

Sakatu edozein tekla jarraitzeko eta zereginarekin hasteko...